

## Horizonte Europa: berriak

**Europako Batzordeak atari berri bat abiarazi du, eta horrek aurreko “Participant Portal” ordeztuko du. Horixe izango da Europar Batasuneko finantza-programetarako sarbide bakarra.**

*Funding & Tender Opportunities Portal* webgune berriak “Portal del participante” ([https://ec.europa.eu/research/participants/portal/desktop/en/opportunities/h2020/search/search\\_topics.html#c.topics=callStatus/t/Forthcoming/1/1/0/default-group&callStatus/t/Open/1/1/0/default-group&callStatus/t/Closed/0/1/0/default-group&+identifier/desc](https://ec.europa.eu/research/participants/portal/desktop/en/opportunities/h2020/search/search_topics.html#c.topics=callStatus/t/Forthcoming/1/1/0/default-group&callStatus/t/Open/1/1/0/default-group&callStatus/t/Closed/0/1/0/default-group&+identifier/desc))-n egun dauden funtzio guztiak hartzen ditu. Diseinu berria du eta hitz gakoen bidezko bilaketaren funtzioa hobetu du.

**Bi atariok martxan egongo dira, abenduaren amaieran ‘Portal del participante’ deskonektatzen den bitartean.**

Funding & Tender Opportunities Portal (<https://ec.europa.eu/info/funding-tenders/opportunities/portal/screen/home>)

Youtube: What is new? (<https://www.youtube.com/watch?v=z5URvbgsYOQ&feature=youtu.be>)

Bestalde, **Europar Batasuneko Lehiakortasunaren Kontseilua joan den azaroaren 30ean bildu zen, eta Horizonte Europaren (H2020) jarraituko dion etorkizuneko ikerketa- eta berrikuntza-esparru programa) ikuspuntu orokorraren aldeko botoa eman du.**

EBko estatu kideek programaren jarduketan nagusiak adostu dituzte, Europako Batzordearen proposamen (<https://ikerketa.elika.eus/hurrengo-horizonte-europa-esparru-programaren-proposamenaren-argitalpena/>)-ean oinarrituta (ekainean argitaratu zen). Hemendik aurrera, Europako Parlamentuarekin negoziatzen jarraitu beharko da, 2019an programa eta aurrekontua onesteko, Kontseiluak eta Europako Parlamentuak hala erabakita elkarrekin.

Kontseiluaren prentsa-oharra: Council agrees its position on new framework for EU research and innovation into the next decade (<https://www.consilium.europa.eu/en/press/press-releases/2018/11/30/council-agrees-its-position-on-new-framework-for-eu-research-and-innovation-into-the-next-decade/>)

**ELIKA** . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxe: 945 122 171 .  
[berri@elika.eus](mailto:berri@elika.eus) (<mailto:berri@elika.eus>)